


## Galtzagorri ALBISTE

### Literatura eta hezkidetza uztartzen dituen areto literarioa

Iragan azaroan ireki ditu ateak lehen aldiz Arrasateko Bibliotekan Itsaspeko Bihotzak Galtzagorri Elkartearen areto literario berriak. Aitziber Alonsok, Mireia Delgadok eta Miren Guillok diseinatu eta zuzendutako areto honek irakurtzeko zaletasuna sustatzeaz gain, genero-berdintasuna lantzea du helburu, euskarazko Haur eta Gazte Literatura oinarri hartuta. Aretoak Arrasaten egin du lehen geldialdia, eta ondoren, Hernanira eta Donostiara bidaiatu du 2014an. 2015ean EAEn zehar ibiliko da.



Galtzagorri Elkarteak urteak daramatza areto literarioak sortzen. Jolas literarioak dira areto literarioak, non haurrek modu aktibo batean hartzen duten parte guk proposatzen diegun jolasean. Hainbat diziplina artistiko biltzen dituzte aretoek eta horregatik horien sorreran hainbat alorretako profesionalak hartzen dute parte: ilustrazioa, musika, arte ederrak, diseinua, ikus-entzunezkoak, animazioa, antzerkia... egiten duten artisten arteko lankidetzak barneratzen dute aretoek. Horietako gehienak Itziar Zubizarretaren gidaritzapean egin izan dira orain arte eta bakoitzak gai zehatz bat jorratzen du, euskarazko Haur eta Gazte Literatura tarteko.

Oraingo honetan, Galtzagorri Elkarteak genero-berdintasunaren gaia landu nahi izan du euskarazko haur literaturaren bitartez. Horretarako *ITSASPEKO BIHOTZAK* izeneko aretoa sortu du, non Haur Literaturan genero-berdintasunaren gaia ikuspuntu ezberdinetatik jorratzen



dituzten liburuak aitzakia hartuta, eszenografia oso bat gauzatuko den, musika, ikus-entzunezkoak, ilustrazioa, genero-berdintasuna eta pedagogia bera uztartuz, guztia jolas baten bitartez eta 8-11 urte bitarteko haurrei bideratuta.

#### NESKA ETA MUTILEN ESTEREOTIPOAK HAUR LITERATURAN

Galtzagorri Elkartearen Haur eta Gazte literaturarekin lanean dihardugu. Material asko pasatzen da gure eskuetatik egunero eta aspaldi kezkatutik gaude haur zein gazte literaturan ageri diren neska eta mutilen estereotipoekin.

Ipuinak gure errealitate soziokulturalaren isla dira. Bertan, sexu-generoaren bereizkeria txertaturik dago bete-betean eta arrakasta handiz zabaltzen dituzte estereotipoak, umeei arin barneratzen dute irudie-

tan zein testuetan datorren informazioa, askotan ipuinaren garapenarekin zerikusirik ez badu ere.

#### 2011N LANDATU, 2014AN FRUITUA JASO

Horregatik, Galtzagorri Elkarteak genero-berdintasunaren gaiari heldu nahi izan dio areto berri hau sortzerakoan. 2011n hasi ginen orain aurkeztu dugun areto literario hau abiatu nahian. Horretarako Miren Guillok eta Mireia Delgado pedagogo eta genero-gaietan adituei eta Aitziber Alonsok ilustratzaileari eskatu zien Galtzagorri Elkarteak areto literario bat sortu eta diseinatzeko.

2014an egi bihurtu da azkenean aretoa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzari esker. Aretoa herriz herri mugitzeko xedez sortua da, eta hala, lehen ibilbidea Arrasaten

hasi, Hernanitik pasa eta Donostiaraino egin du. Horretarako, Arrasateko Udalaren, Hernaniko Udalaren eta Donostia 2016ren laguntza eskuratu du Galtzagorri Elkarteak.

#### IBILBIDE PEDAGOGIKO- -ARTISTIKOA

Leku horietako bakoitzean saio gidatuak eskaini dira 8-11 urte bitarteko haurrentzat. Herri edo hiri bakoitzean, gutxienez, 10 saio gidatu eskaintzen dira 25 haurrez osatutako taldeentzako. Saioak ikastetxei eskaintzen zaizkienez, goizez izaten dira, baina arratsaldean aretoa zabalik egon ohi da ibilbidea modu "askean" egin nahi duten gazte nahiz helduentzat ere.

Bisita gidatua egiten duen haur talde bakoitzak hezkidetza ardatz izango duen ibilbide pedagogiko-artistiko bat egingo du; bertan haur literatura da tresna eta bidea. Baina bestela-





ko arte adierazpenak ere tartekatuta ditugu irudi parekideak, sexismorik gabeko egoerak plazaratzeko: ilustrazioa, ikus-entzunezkoak, artisautza, jostungintza... Hau da, umeen irudimenean –eta bide batez, haien hezitzaile eta gurasoen begirade-tan- hausnarketa txiki bat pizteko, emozio eta sentsazioen bitartez barneratzeko.

*Itsaspeko bihotzak* aretoan gauzatu den libilbide didaktikoa, itsaso batean kokaturik dauden bost gunetan oinarrituko da. Gune bakoitzean, gai desberdinak eta eduki garrantzitsuak jorratuko diren txokoekin egingo dute topo, guztira bost gune artistikorekin.

Gai bakoitzaren eduki ideologikoa artearekin uztartuta barneratuko dute. Ilustrazio, artisau elementu eta liburuen bitartez lortuko da helburu hori. Txoko bakoitzean modu desberdinean landuko da edukia: ipuintxoak kontatuz, ikus-entzunezkoak ikusiz, abestitxoak kanta-

tuz, jolasak eginez... Hala, besteak beste, Aitziber Alonsoren lanaz gain, Elena Odriozolaren eta Eider Eibarren ilustrazio-lanak ere bilduko ditu *Itsaspeko bihotzak* aretoak.

### ZERTARAKO SORTU DUGU ARETOA?

Hauk dira Itsaspeko bihotzak aretoak lortu nahi dituen helburuak:

#### 1. Literatura hezkidetzalea ume zein helduei ezagutaraztea:

- Haur Literatura androzentrikorik gabeko espazio bat sortzea.
- Emakume eta gizonentzat eredu irekia planteatzen duten liburuak ezagutaraztea.
- Era askotako famili-ereduak erakusten dituzten ipuinak ezagutaraztea.
- Estereotiporik gabeko pertsonaiak dituzten lanak ezagutaraztea.

#### 2. Haurren irakurtzeko zale-tasuna sustatzea

#### 3. Artea eta estetika kontzeptuetan hezi, begirada artistikoa landuz:


- Euskal emakume ilustratzaileen artelanak sortu eta ezagutzea.
- Begirada artistikoaz gozatzea.

#### 4. Praktika pedagogiko hezkidetzalea aurrera eramatea:

- Saio osoan sexu-generoaren bereizkeriarik gabeko jolasak egitea.
- Espazioa modu parekidean erabil dezaten lana egitea.
- Umeen parte-hartzea parekidea izan dadin zaintzea.
- Jolasetan hausnarketa piztea, beste irudi batzuk eskainiz.

#### 5. Imaginario kolektiboan sexu-generoen estereotipoak gainditzeko aukerak eskaintzea:

- Lanbide guztiak denontzat izan daitezkeela ulertzea.
- Maitasun erromantikoaren ideia erlatibizatzea.
- Neskak eta mutilak bereizi ordez, bereizketak konplexuagoak direla ulertaraztea.



- Emozioak ezagutu eta kudeatzaren garrantziaz aritzea.
- Genero-rolak jostatzea.
- Arte-adierazpenen bitartez ideia horiek biziaraztea, sentitzea.

Aretoa edozein udal liburutegitan gauza daiteke. Beraz, informazioa eskuratu nahi duena jar dadila harremanetan Galtzagorri Elkartearekin ([galtzagorri@galtzagorri.org](mailto:galtzagorri@galtzagorri.org) edo 943471487 telefonoan).



Last November the new "Itsaspeko Bihotzak" literature room of the Galtzagorri Association opened its doors for the first time in the Library of Arrasate-Mondragon. This room, designed and run by Aitziber Alonso, Mireia Delgado and Miren Guillo, not only sets out to encourage a love of reading, but also to develop gender equality on the basis of children's literature in Basque.